

“Ekonomiak gizartearen lehentasunezko beharrei lotuta egon behar du” (Enrique Del Río)

ELKARTASUNEZKO EKONOMIAREN TOPAGUNEA

Iruñeko Zitudadela topagune izan genuen 11 egunez. Bertan ekonomia humanoago, bidezkoagoa, eta elkartasunezkoagoa bideratzeko modu berri honetaz (zaharra bada ere) hausnarketa eta eztabaida egin genuen hara hurbildutako guztiekin.



Laburrak

Berriak REASen

Barañaingo Auditorioa eta Biolur, entitate berriak gurean.

Kuban topagunea.

Elkartasunezko ekonomiaren eta bidezko merkataritzaren II Latinoamerikako topaketan parte hartu genuen 22 herrialdetako 155 ordezkariak. Ikusi Blog Cuba07 webgunean.

Elkartasunezko Ekonomiaren bideoa

Eguzki Bideoak 30 minutuko bideoa plazaratu berri du Reasentzat. Idazkaritza bulegoan eska dezakezu.

Albiste Buletina

Elkartasunezko ekonomiaren inguruko azken berriak, dokumentuak eta jarduerak biltzen dituen hilabetekaria jasotzeko webgunean izena eman dezakezu.

Bidezko Merkataritzaren jaia

Maiatzaren 7-13 bitarte jarduerak zenbait eginen dira Iruñean. 12an Azoka Sarasate Pasealekuan. Ikusi webgunea.

Estatu mailako Batzarra.

Aurten Bartzelonan, maiatzaren 18-19 "Munduko arazoak, tokiko erantzunak" jardunaldiarekin batera. Ikusi webgunea.

REAS Nafarroako batzarra

Lau orduz eta parte hartze zabala edukita, joan den urteko kudeaketa aztertu genuen eta lan batzorde bakoitzaren eta zuzendaritzaren lana nondik jo behar zuen ere erabaki zen bertan. Zuzendaritzaren erdia ere berri egin zen.



Elkartasunezko Ekonomiara hurbildu zortzi fitxa didaktikoen bidez. Jorratzen diren gaiak hauek:

- 1 Elkartasunezko Ekonomia
- 2 Bidezko Merkataritza
- 3 Banku Etikoa
- 4 Kontsumo Arduratsua
- 5 Turismo Arduratsua
- 6 Energia
- 7 Merkatu Soziala
- 8 Herritarren Parte Hartzea

Hemen dituzu eskuragarri:
<http://www.economiasolidaria.org/reasnavarra/fichas>

HEDABIDEekin LAN-HITZARMENAK

Diario de Noticias REAS Nafarroarekin elkartasunezko ekonomia hedatzeko eta ikusarazteko lan-hitzarmen bat izenpetu duen lehenbiziko komunikabidea izan da. Halaber Nafarroako gizarteari kontsumo aukerak eskainiko dizkio. Urte honetan zehar beste komunikabideei luzatuko zaie parte hartzeko aukera.



“Elkartasunezko Ekonomia, errealitate bat Amerika Latinan”

IPESen, hitzaldia maiatzaren 16an, 19,30etan, Amerika Latineko elkartasunezko ekonomiaren buruen testimonioak eta hausnarketak izanen dira bertan. La Habanan, elkartasunezko ekonomiaren eta bidezko merkataritzaren II Latinoamerikako topaketan eta Kordobakoetan eginiko elkarrizketak biltzen dituen dokumentala ikusiko da.

FIARE BANKU ETIKOA

Madriren eta Bartzelonan bulegoak zabalduko dira laster, banku etikoaren ereduaren aldeko apustua egin duten entitate ugarien bitartez.



ekonomia alternatibo eta elkartasunezkoaren sarea
Artica, 32-Iruñea Tf: 685 517 030
secretariareasnavarra@reasnet.com
www.economiasolidaria.org/reasnavarra

JARDUERAK 2007 REAS NAFARROA

Jarduera ekonomiko guztiek eragina dute ekonomian, bai gure kontsumo-jarduera pertsonalek, bai mundu mailako finantza-jarduera globalak. Eta kasu horietan guztietan zuzeneko eragina dute gudan ere, baliabide mugatuengatik txiki gelditu zaigun gure mundu honetan. Horregatik uste dugu berandu baino lehen lehenetsi behar dela elkartasunezko ekonomia bat, printzipioduna, balioduna, eta kontsumo arduratsutik, bidezko merkataritzatik eta finantza etikoetatik aritzen dena...

Pertsona zein erakunde guztiek iraunkortasunarekiko ardura sozial bat daukagu, Horregatik aurten REASetik pertsonen eta euren ingurunearen zerbitzura behar duen ekonomia baten alde egiten dugu lan, sektore ezberdinak inplikatur.

Elkartasunezko enpresa-ehuna indartuz

Ezinbestekoa jotzen dugu elkartasunezko enprekin ekoizpen edo zerbitzu arloak lantzea, hortik hasiko baita gizartearen eraldatze humanoagoa eta bidezkoagoa.

Sektorea bizkortzeko ekintzak:

- Estatuko Merkatu Sozialaren sorreran parte hartzea.
- Erosketa Zentro komuna handiagotzea.
- Marka bateratua sendotzea eta zabaltzea.
- Entitate bakoitzean Auditoria Soziala egin.



Elkartasunezko ekonomia zabaltu eta ikusarazi

Beharrezkoa da elkartasunezko ekonomiaren ezagutza gizartearen hedatzea, horretarako sektore ezberdinak inplikatur:

- Komunikabideak
- Udalak

Edo baliabide propioak erabiliz:

- Webgunea
- Turismo Arduratsuaren Jardunaldia
- Ekuadorrekin senidetzea.

Sarearen lan batzordeak

- Enpresak
- Gizarteratze Zentroak
- Kontsumo Arduratsua
- Banku Etikoa
- Prestakuntza
- Auditoria Soziala
- Nazioartekoa
- Komunikazioa

Kontsumo arduratsuaren aukerak hurbilduz

Garapen humano iraunkorra lortuko bada, egunerokotasunean ezinbesteko tresna dugu kontsumo arduratsua. Sustatzeko egitekoak:

- Elkartasunezko ekonomiaren gidaliburu berria
- DVD eta ikus-entzunezko fitxak
- Salmenta-gunen gida eguneratu
- 8 fitxa tematikoen jostea
- Energiaren gida editatu
- Erosketarik gabeko eguna ospatu
- Buletinak hilero kaleratu
- Panelen sarea handitu



Finantza etikoak sustatuz

Gure aurrezkiak elkartasunezko ekonomian inbertitu daitezke jadanik, bai Iparraldean, bai Hegoaldean, FIARE banku etikoaren bulegoaren bidez.

Orain banku etikoa tresna propio bat bilakatu behar dugu, herritarrek nahiz gizarte-ehunak zuzendutakoa.

Aurten proiektu hau landuko duen Elkarte bat gauzatu dugu, sortuko den herritarren banku etikoarentzat kapital sozialaren ekarpenak jasoko dituen kanpaina bat egitearekin batera.

Prestakuntza, informazioa eta aholku ematea

Elkartasunezko ekonomiaren, kontsumo arduratsuaren, banku etikoaren eta lotutako gaien inguruko aholku teknikoak gero eta gehiago eskatzen dira sarearen entitateen partetik, gizarte-ehunetik eta oro har, herritarrengandik.

Horregatik aurten sortu nahi dugu:

- Dokumentazio eta laguntza teknikoko Zentroa
- Hausnartze eta eztabaidatze gunea
- Prestakuntza ikastaroak
- Material didaktikoa

